

50. urteurreneko ospakizunen harira

EROSKI-K EAE-KO PRODUKTUEN AZOKA GASTRONOMIKOA EGINGO DU

- **Bilboko Areatzan izango da arratsalde honetan eta bihar, eta tokiko hogeita hamar bat ekoizle egongo dira**
- **Tokiko ekoizleekin jardutea da EROSKIren politika komertzialaren bereizgarrietako ba. Nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzen du hala, haren ekoizpen ehuna dibertsifikatuta, hori giltzarrizkoa delakoan haren iraukortasunerako eta enpleguari, ekonomiari, kulturari eta paisaiari laguntzeko**
- **Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 300 ekoizle txikirekin dihardu EROSKI k 2.000 produktu baino gehiago saltzen. Erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez**

Bilbo, 2019ko ekainaren 7a.- Asteburu honetan izango da, Bilboko Areatzan, *Azoka Gastronomikoa: hemengo produkturik onenak. Aisialdia eta kultura*, [EROSKI](#) k antolatutako ekitaldia, eta EAEko hogeita hamar bat ekoizle izango dira bertan beren produktuak ezagutarazten eta balioan jartzen eta haien kontsumoa sustatzen.

Gaur goizean abiatu da azoka, inaugurazio ekitaldi batekin. Bertan ziren Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Oroz eta Bilboko Udaleko Ekonomiaren Sustapenerako zinegotzi Xabier Otxandiano. Haiekin batera izan da EROSKIko Idazkari Nagusia, Mikel Larrea. Ongietorria eman die bertaratuei, eta hauxe gogorarazi du: *"Une historiko batean gara, gure 50. urteurreneko ospakizunean, eta zer hoberik gure historiaren, kulturaren eta balio sozialen parte izan diren ekoizleekin ospatzea baino"*.

Azoka, gaur arratsaldean eta bihar egongo dena, foro ireki bat da, eta bertan, ezagutu eta esperimintatu egin daiteke tokiko produktu baten atzean nolako tradiziozko historia dagoen: lehengai bikainak, lekuak eta egiteko era bereziak. Salmenta eremu zabala egongo da, eta tokiko produktuak dastatzera emango dituzte; gainera, doako jarduerak izango dira edonorentzat. *"EROSKIren politika komertzialak nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzen du, haren ekoizpen ehunaren dibertsitatean oinarrituta, hori giltzarrizkoa delakoan haren iraukortasunerako eta enpleguari, ekonomiari, kulturari eta paisaiari laguntzeko. Kooperatiba gisa, horrek engaiatzen gaitu aniztasun horren alde egitera, kolaborazio guneak sortzera eta hornitzaile mordo batekin lan egitera"*, esan du EROSKIko idazkari nagusiak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 300 ekoizle txikirekin baino gehiagorekin dihardu EROSKI 2.000 produktu pasa saltzen. Erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore iraunkor eta oso dibertsifikatu bati. EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 650 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero.

Edonorentzako jarduerak

Gaur arratsaldean abiatuko da azoka, Bilboko Areatzan, eta irekita egongo da 17:00etatik 20:30era, eta bihar jarraituko du, 12:30etik 21:00etara. Karpa nagusi bat izango du, eta bertaratuek ikusgai izango dituzte tailer gastronomikoak, haurrentzako elikadura osasungarriari buruzko tailerrak eta sukaldari profesionalen eskola bikainak.

Horretaz gain, txakolina, Arabako Errioxako ardoa, sagardoa eta Idiazabal gazta emango dituzte dastatzera, eta kanpoaldean, berriz, EAEko 30 bat ekoizle egongo dira beren produktuak eskaintzen. Zozketak, lehiaketak eta sariak ere izango dira, eta musika ekitaldiekin girotua egongo da azoka.

Ekitaldien barnean, larunbat goizean, aizkolari eskalatzaileren txapelketa egingo dute, eta azoka guztian *Eusko Label* arkumekiaren eta txerrikiaren elkartasunezko pintxo poteak izango dira, sagardoarekin lagunduta; etekinak Bizkaiko AECCrentzat izango dira.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)